IKASTETXE PUBLIKOETAKO ESKOLA KONTSEILUAK OSATZEKO HAUTESKUNDE PROZESURAKO OSAGARRIZKO JARRAIBIDEAK

1.-Hautatu beharreko pertsonak

Ikastetxe bakoitzaren egoera kontuan hartuta, ordezkaritza-organo goreneko kideak zehaztapen hauen arabera hautatuko dira:

a) Ikastetxe berrietan, hau da, 2024-2025 ikasturtean egindako azken hauteskundeez geroztik sortutakoetan, Eskola Kontseiluetako hautetsi guztiak hautatuko dira.

b) 2024-2025 ikasturteko azken hauteskundeez geroztik izandako bategite edo integrazio prozesuaren ondorioz sortutako ikastetxeetan ere, bategite edo integrazioaren ondorioz sortutako ikastetxe berriko Eskola Kontseiluko kide guztiak aukeratu behar dira.

c) 2024-2025 ikasturtean egindako hauteskunde-prozesuan Ordezkaritza Organo Goreneko kideak aukeratu ondoren, antolamendu- eta jarduera-araudiaren aldaketa onartuz Eskola Kontseiluko osaketan aldaketak egin dituzten ikastetxeek berriro hautatu beharko dituzte Eskola Kontseiluko kide guztiak.

d) 2024-2025 ikasturtean egindako hauteskunde-prozesuan Eskola Kontseiluko ordezkariak hautatu zituzten ikastetxeek, ez badute Eskola Kontseiluari buruzko aldaketarik onartu antolamendu- eta jarduera-araudian, honako leku hutsak betetzeko kideak hautatuko dituzte:

   1) Ordezkari izendapena izateko agintaldia 2026-2027 ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan amaitzen duten ordezkariek edo horien ordezkoek hutsik utziko dituzten leku hutsak.

   2) 2024-2025 ikasturtean 4 urterako aukeratu eta orduz geroztik, edozergatik dela ere, Eskola Kontseiluko kide hautetsi gisa baja eragin duten ordezkariek sortutako leku hutsak, baja ordezko batek betea izan ala ez. Kontuan izan behar da azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuaren 42. artikuluaren 5. paragrafoan ezarritakoari jarraiki, baja eragin duen ordezkaria 2028-2029 ikasturtearen hasiera arte izendatu bazen ere, bere ordezkoak 2026-2027 ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan utzi behar diola Eskola Kontseiluko kide izateari.

2.- Hauteskunde-prozesua arautzen duen arautegia.

Aurreko jarraibideko a, b eta c idatz-zatietan deskribatutako kasuetan kontuan hartuko da azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuko 5. artikuluan jasotakoa. Dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan Eskola Kontseilua hautatzeko eta berritzeko prozesua arautzen da (1996ko azaroaren 15eko EHAA).

Aurreko jarraipideko d idatz-zatian deskribatutako kasuetan kontuan hartuko da aipatutako Dekretuko 6. eta 7. artikuluetan ezarritakoa.

Edozein kasutan ere, dagokion hauteskunde-prozesua aipatutako Dekretuko 11. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan egingo da.

3.- Gurasoen elkarteak izendatutako ordezkaria.

Ikastetxeko Eskola kontseiluak gurasoen elkarteak izendatutako kide bat badu eta kide horren agintaldia ez bada amaitzen 2026-2027 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan, kide horrek Eskola Kontseilukoa izaten jarraituko du agintaldia amaitu arte. Bestela, ikastetxean ordezkaritza handiena duen guraso-elkarteak bere esku izango du izendatzea sektore horrek hautatu behar duen ikasleen gurasoen lehen ordezkaria. Horretarako, komunikazioa bidaliko dio ikastetxeko zuzendariari, hautagaiak aurkezteko epea hasi baino lehen, izendatutako ordezkariaren izena adieraziz. Izendapen hori egin ezean, hauteskunde-prozesu arruntean beteko da plaza hori.

Ikasleen gurasoen hauteskunde-erroldan egongo da ordezkari hori. Lau urteko agintaldia izango du, hasiera batean behintzat, eta ikasleen gurasoen ordezkari hautatuen arrazoi berberak izango ditu kargua uzteko, eta gainera, izendatu zuen ikasleen guraso-elkartearen erabakiz ere kendu ahal izango dute kargutik.

Ikasleen guraso-elkarteak izendaturiko ordezkariak kargua utziz gero bere agintaldia amaitu baino lehen, une horretan ikastetxean ordezkaritza handiena duen guraso-elkarteak ordezko bat izendatuko du. Bi hilabeteko epean izendapenik egin ezean, honako honek beteko du postu huts hori: egindako azken hauteskundeari dagokion guraso kontseiluen ordezkoen zerrendako lehenak.

Edonola ere, azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuaren 42. artikuluaren 5. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, berritze partziala burutzen den arte ordezkoa Eskola Kontseiluaren kide izendatua izango da, ordezten duen pertsonaren agintaldiak zeukan iraupena edozein izanda ere.

Ordezkaritza handieneko guraso-elkartetzat joko da ikastetxeko ikasleen guraso-kopuru handiena bazkidetuta duena.

4.-Hauteskunde Batzordea.

Ez zuzendariak ezta zozketaz Hauteskunde Batzordeko partaide izan behar duten beste pertsonek ere, ezin diote Batzordean parte hartzeari uko egin.

Ikastetxeko zuzendaria, irakaslegoaren eta irakasle ez den pertsonalaren ordezkariak bezalaxe, Administrazioko langileak direla kontuan izanik, behartuta daude Hauteskunde Batzordeak egiten dituen bilera guztietara joatera eta dagozkien betebeharrak egitera.

Edonola, Batzordeko partaideren bat ez badago ere, Batzordeak hartutako erabaki guztiak baliogarriak izango dira.

Hauteskunde Batzordeko partaide izatea ez da oztopoa izango partaidea hautagaia izateko, eta Eskola Kontseilua osatzeko dagokion estamentuko ordezkaria izateko.

5.- Hautagai zerrendak osatzea

Hautagaiak elkarte, erakunde edo talde jakin bateko kide gisa aurkeztu ahal izango dira, betiere elkarte hori legez eratuta eta Elkarteen Erregistroan inskribatuta badago.

6.- Ikastetxeko OOGeko berezko kideak.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 32.2 atalak xedatzen duen arabera, Zuzendaritza-Taldeko kide izateagatik Eskola Kontseiluko berezko kideak direnak, Zuzendaria, Ikasketa-Burua eta Idazkaria, (hizpidearekin baina boto-eskubiderik gabe), besterik ez dira.

Beraz, Gaueko Ikasketa Burua ezin daiteke, inola ere ez, ikastetxeko Eskola Kontseiluko berezko kide izan.

7.- Zein kasutan ez den beharrezkoa hauteskunde-prozesua egitea

Eskola-erkidegoko sektoreren batean izangaien kopurua prozesu honetan sektore horretan aukeratu behar diren ordezkariena adinakoa edo txikiagoa den kasuetan, ez da hauteskunde-prozesua gauzatu beharko eta izangai guztiak automatikoki hautetsiak izango dira, betiere lau urteko aldi baterako izendatu behar diren eta bi urteko aldi baterako izendatu behar diren izangaiak zeintzuk diren zehaztu behar ez bada.

Eskola-erkidegoko sektoreren bateko izangaien kopurua prozesu honetan sektore horretan aukeratu behar diren ordezkariena adinakoa edo txikiagoa denean, baina lau urteko aldi baterako eta bi urteko aldi baterako aukeratu behar diren izangaiak zeintzuk diren zehaztu behar baldin bada, hauteskunde-prozesua gauzatu behar da eta, azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuak 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, boto kopururik handiena lortzen duten izangaiei lau urterako izendatuko dira eta gainontzekoak bi urterako.

8.- Irakaslegoaren ordezkariak hautatzea

Lanpostua jabetzan ikastetxe batean eduki eta zerbitzu-eginkizunetan beste ikastetxe batean lanean ari diren irakasleak zerbitzu eginkizunetan dauden

ikastetxeetan izango dira hautesle eta hautagarriak, eta ez dira hautesle eta hautagarriak izango lanpostua jabetzan duten ikastetxean.

Ikastetxeko irakasle titularrek, baldin eta administrazioko beste lanpostu batzuetan zerbitzu-eginkizunetan ari badira, zerbitzu berezietan badaude, sindikatu-ordezkari izateagatik liberatuta badaude, ikasketengatiko lizentzia edo partzialki ordaindutako baimena badute (urte sabatikoa), IRALEko ikastaroetarako liberatuta badaude, lanerako ezintasun iragankorreko egoeran badaude edo aipatutakoen antzeko egoeraren batean badaude, hautagai gisa aurkezteko eskubidea izango dute, baina ez dira hautesle izango, eskubide hori klaustroko kide den bitartean ordezko irakaslearena delako. Irakasle horien ordezkoek ez dute hautagai gisa aurkezteko eskubiderik izango.

Liburutegia zaintzeko edo eskolaz kanpoko ekintzak egiteko lanpostuetan dauden irakasleak, edo antzeko egoeretan daudenak ikastetxearen Klaustroko kideak dira eragin guztietarako.

Bi ikastetxetan ari diren irakasleak adskripzioa duten ikastetxean izango dira hautesle eta hautagai.

Irakasle baten lanaldia osatzeko egun zatiz ari den irakasleak ez du ez hautesle ez hautagai izaerarik izango, berau irakasle titularrak bereganatuz.

Erlijioko irakasleek hautesle eta hautagai izaera izango dute adskripzioa duten ikastetxean.

Ikastetxe batera atxikituta ez dauden irakasleak, (Lurralde Ordezkaritzetara edo Berritzegunetara adskribatutakoak kasu), ezingo dira izan hautagarri ezta hautesleak ikastetxe baten.

9.- Hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkari bat aukeratu behar duten ikastetxeak.

Hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkari bat ere izango da Eskola Kontseiluaren partaide Hezkuntza Bereziko ikastetxe espezifikoetan eta Hezkuntza Bereziko unitateak dituzten horietan.

Honako hauek joko dira hezkuntza-arreta osagarriko langiletzat: lan-kontratuko langileak, ikastetxera atxikita badaude uztailaren 4ko 186/2017 Dekretuaren eranskinean (eta ondorengo aldaketak) ezarritako lanpostuetakoren batean. Dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratudun langileen lanpostuen zerrenda onartu da.

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna antolatzen duenak, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, ikasle horiek, ahal den guztietan, unitate arruntetan eskolatuko dira eta beharrezkoak direnean besterik ez dira Hezkuntza Bereziko unitateak edo ikastetxe arruntetako gela egonkorrak erabiliko.

Ondorioz, **Hezkuntza Bereziko gela egonkor bat edo batzuk dituzten ikastetxeak dira Hezkuntza Bereziko unitateak dituztenak** eta berauetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei ematen zaie bakarrik arreta, ikasle hauek ikastetxeko gela arruntetan integratuta egon gabe.

Aurreko idazatiaren barruan dauden ikastetxeetan, hezkuntza-arreta osagarria emateko pertsonalaren ordezkari batek izan beharko du Eskola Kontseiluaren partaide.

Ordezkari hori sartzearen ondorioz ikastetxeko OOGren osaketak Euskal Eskola Publikoaren Legeak 32.2. artikuluan edo uztailaren 6ko 201/1993 Dekretuak eskola-erkidegoko sektore desberdinei buruz ezarritako gutxienezko ehunekoak bete ezean, Ikastetxearen **Antolamendu eta Jarduera araudia aldatu beharko da,** hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkaria jasoko duen osaketa berri bat zehazteko. Halaber, osaketa berriak lehen aipatutako araudiak beste sektoreen ordezkaritzari buruz dioena errespetatu beharko du.

Ikastetxearen antolamendu eta jarduera araudia lehen aipatu den bezala aldatu behar izanez gero, berehala aldatu egin beharko da eta, betiere, 2026ko azaroaren 5tik 23era bitartean izango diren hauteskunde-ekitaldien aurretik. AJAren aldaketa onartu ondoren, Hezkuntza Ikuskaritzari jakinarazi beharko zaio eta honek onartutako aldaketa indarreko legeriaren araberakoa den ala ez erabaki beharko du.

Aitzitik, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta ikasle horiek ikasgela arruntetan integratzearen bidez soilik egiten den eta behar duten arreta espezifikoa ematen zaien ikastetxeetan, **ez dagokio hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkaririk ikastetxeko Eskola Kontseiluan sartzea.**

Ondorioz, ikastetxe horietan hezkuntza-arreta osagarriko langileak ez dira hautesleak, ezta hautagarriak ere, ikastetxearen Eskola Kontseiluan ordezkatuta egoteko eskubidea duten hezkuntza-erkidegoko sektoreetan.

10.- Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak aukeratzea, bai eta, dagokien ikastetxeetan, hezkuntza-arreta osagarriko langileak ere.

Hautesle eta hautagai dira ikastetxearekin lan- edo administrazio-lotura duten eta irakaskuntzaz bestelako eginkizunak betetzen dituzten pertsona guztiak. Kanpoan geratzen dira, zentroan zerbitzuak eman arren, enpresa pribatuen mendeko langile gisa lan egiten duten pertsonak.

Langileak beren zerbitzuak ematen dituzten ikastetxean izango dira hautesle eta hautagai, nahiz eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza bati atxikita egon.

Lanpostua jabetzan ikastetxe batean eduki eta zerbitzu-eginkizunetan beste ikastetxe batean lanean ari diren langileak zerbitzu eginkizunetan dauden ikastetxeetan izango dira hautesle eta hautagarriak, eta ez dira hautesle eta hautagarriak izango lanpostua jabetzan duten ikastetxean.

Zentroko langile titularrek, Administrazioko beste lanpostu batzuetan zerbitzu-eginkizunetan ari badira, zerbitzu berezietan badaude, sindikatu-ordezkariak izateagatik liberatuta badaude, lanerako ezintasun iragankorrean badaude edo aipatutakoen antzeko egoeraren batean badaude, hautagai gisa aurkezteko eskubidea izango dute, baina ez dira hautesle izango, eskubide hori ordezko langilearena delako, langile hori Zentroko kide den bitartean. Langile horien ordezkoek ez dute hautagai gisa aurkezteko eskubiderik izango.

Bi ikastetxetan ari diren langileak adskripzioa duten ikastetxean izango dira hautesle eta hautagai.

Plaza baten titularraren lanaldia osatzeko lanaldi partzialean lan egiten duten langileak ez dira ez hautesle ez hautagai izango; titularra, ordea, bai.

11.- Hauteskunde prozesuaren dokumentazioa

Ikastetxe bakoitzak bere aktak eta boto-txartelak egingo ditu, Hauteskunde Batzordeak gainbegiratuta. Nahi dutenek Hezkuntza Sailak proposatutako akta-ereduak erabili ahal izango dituzte.

Boto-txartelek hautagaien behin betiko zerrendan agertzen diren pertsonen zerrenda alfabetikoki ordenatuta jaso behar dute, inolako zehaztapen edo bereizgarririk gabe, salbu eta hautagairen bat elkarte, erakunde edo talde jakin bateko kide gisa aurkeztu bada eta hala adierazi bada hautagaitzak aurkeztean.

2026ko abenduaren 11a baino lehen, ikastetxeko zuzendariak hauteskunde-prozesuaren laburpen-fitxa bete eta dagokion Ikuskaritza-eremura bidaliko du.

12.- Posta bidezko botoa

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektore guztien parte-hartze ahalik eta handiena lortze aldera, hautesleek postaz ere eman ahal izango dute botoa, zeina Hauteskunde Batzordearen esku izango baita hauteskundeak egiteko aurreikusi den egunaren bezperan. Hauteskunde Batzordeak zerrenda baten jasoko ditu hartutako komunikazioak, eta zerrenda hori hauteskunde-mahai bakoitzari emango zaio hauteskunde-egunean eratzen den unean bertan.

Horretarako, botoa posta-sistemaren bidez eman nahi duten hautesleek Hauteskunde Batzordeko buruari helaraziko dizkiote jarraian zehazten diren dokumentuak, gutunez, mezulariaren bitartez, edo hautesleak berak edo beste pertsona batek ikastetxean bertan entregatuz:

a) Hautesleak izenpetutako eskabidea, posta bidezko botoa emateko eskubidea eskatzen duena. Bertan, bere izena, abizenak, nortasun-agiri nazionalaren zenbakia edo

baliokide den egiaztagiri baten zenbakia eta botoa emateko eskubidea gauzatzen duen hezkuntza-komunitatearen sektorea adieraziko dira

b) Nortasun agiri nazionalaren edo antzeko egiaztagiriaren fotokopia.

c) Gutun-azal itxia, boto-txartel betea barruan duela.

Adierazitako dokumentu horiek Hauteskunde Batzordeko buruari helaraziko zaizkio, gutun-azal baten barruan. Gutun-azal horretan honako hau jarri behar da: «..... ikastetxeko Eskola Kontseiluko hauteskundeak. Posta bidezko botoa».

Posta bidezko botoa duten gutun-azalak Hauteskunde Batzordean sartu beharko dira hauteskundeak egin aurreko egunera arteko epean. Adierazitako epetik kanpo jasotzen diren gutun-azalak ez dira bozketan sartuko.

Hauteskunde Batzordeko buruak zainduko ditu jasotako gutun-azalak, hauteskunde-egunera arte. Egun horretan emango zaizkio hauteskunde-mahaiko buruari, modalitate horretako boto-emaileen izen-abizenak jasotzen dituen zerrendarekin batera.

Aurreko guztia gorabehera, posta bidezko boto-emailea hauteskunde-egunean bertan agertzen bada botoa emateko eskubideaz baliatzeko, posta bidezko boto-txartela baliogabetu egingo da. Gorabehera horren berri eman beharko da boto-zenbaketaren amaieran idatziko den aktan.

Hauteskunde-mahaiak posta bidez jasotako botoak gordeko ditu bozketa ixteko adierazitako ordura arte, eta hautestontzian sartuko ditu aipatutako itxiera egiten den unean, aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera aldez aurretik baliogabetuak izan direnak izan ezik.

13.- Botoa eskuordetzeko ezintasuna

Bozketak hautesle bakoitzaren boto zuzen eta isilpekoaren bidez egingo dira. Botoa ezin zaio beste inori eskuordetu.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan

HEZKUNTZA POLITIKETAKO SAILBURUORDEA.

LUCIA TORREALDAY BERRUECO